

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Try (just a little bit harder)



Amaia Alvarez Uribe

Uxue Alberdik helduentzat argitaratu duen laugarren lana da *Jenisjoplin*. Idatzitako bi ipuin bildumetan norberaren eta ingurunearen arteko aritu zen, hainbat girotan kokatu zuen irakurlea, ezagunetik arrotzu nahian. Ondutako bi nobeletan aldiz, ohiko lekuari kanpotik begiratu nahi izan dio memoria ari-keta bat eginez beste begirada batez.

Alde batetik, euskal gatazkari (edo gatazkei) buruz hitz egiten du. Garai baten erradiografia egiten du mende aldaketari begira jarritz. 1980ko hamarkada hasieran jaio zen protagonista den Nagore Vargas, eta 2010ean 28 urterekin hiesa diagnostikatu diote, ETAk armak utziko zituela adierazi zuen urte berean.

Beste alde batetik, euskal identitateari buruz mintzo da, egungo subjektu politikoa marrazten ahalegintzen da bertako pertsonaien, gertaeren eta hausnarketen bidez. "Klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua katalizatzen zuen albokoaren aurka. Ni ikaragarri berotzen ninduen horrek guztiak" dio Nagorek.

Hau guztia Janis Joplin musikari kaliforniararen itzalpean. Sexua, droga eta rock and rolla izango ditugu harietako batzuk, hauen eragin eta ondorioak. Bizitza intentsitatez, konpromiso politikoz bizitzen du protagonistak, 27 urterekin gaindosiaren ondorioz hil zen abeslariak bezala. Nagorek, ordea, diagnostikoarekin, gelditzeko eta ingurura eta bere baitara begiratzeko aukera izango du.

Flash-backetan kontatuko dizkigu bere haurtzaro eta gaztaroa inflexio puntura

Jenisjoplin

UXUE ALBERDI

Susas, 2017

Uxue Alberdi Estibaritz idazlea; Elgoibar, 1984.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO).



heldu arte. Hortik aurrerakoak tartekatuko ditu oroitzapenekin, eta horrela, garai aldaketa protagonistarengan hezurmamituko da, kultura epikotik zaurgarritasunaren kulturara pasatzen ari garela adieraziz.

Hiru kapituluek zenbait argazki utziko dizkigute: euskal herri eta hirien tira-birak, edo zenbait bidaletako bizipenak. Horrekin batera, taberna, etxea, kartzela, zoroetxea, ospitalea, eliza, edo kaleari ere leku egingo zaie, mota askotako kokapen eta baldintzak eskainiz.

Gure errealitatearen bizimodu, kontraesan eta bertsio desberdinak erakutsi nahi dizkigu. Horretarako gelditzeko gonbitea egin digu, orain artekoari eta ingurura begiratzeko, *Jenisjoplin*-en hitzetan pixka bat gehiago saiatzera pasioz eta lasaitasunez, kontzientziaz eta zaintzaz bizitzeko. ■